

FITXA METODOLOGIKOA. **ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEKO HONDAKINEN** **ESTATISTIKA (090219)**

Identifikazioa

Eragiketaren izena.

Eraikuntza- eta eraispen-hondakinen estatistika.

Eragiketaren kodea.

090219 (10/2023 Legea, azaroaren 9koa, 2023-2026 aldirako Euskal Estatistika Planari buruzkoa).

Erakunde arduraduna.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila

Parte hartzen duten beste erakunde batzuk.

- Sustapen Ministerioa
- Foru-aldundiak
- IHOBE
- Eustat-Euskal Estatistika Erakundea.
- Eurostat
- Mankomunitateak
- Udalak

Arlo tematikoa.

Ingurumena.

Aldizkakotasuna.

Urtean behin.

Eragiketa mota.

Beste batzuk

Datuen jatorriaren arabeko metodologia.

Datu administratiboak lortzea, bai eta Eusko Jaurlaritzako sailetatik eta enpresa-erakunde parte-hartzaileetatik jasotako datuak ere.

Helburuak

Eraikuntza- eta eraispén-hondakinen estatistikaren helburu orokorra da EAEn sortutako eraikuntzako eta eraispéneko hondakinak zehatz-mehatz kuantifikatzea, jatorriaren, tipologiaren eta kudeaketaren azken xedeen arabera, bai eta jasotzen duten kudeaketa motaren arabera ere.

Ikertu beharreko aldagai nagusiak

Sortutako hondakinen **tonak eta ehunekoak**

Kudeatutako hondakinen **tonak eta ehunekoak**

Sortutako hondakinen **kilogramoak, biztanle bakoitzeko**

Kudeatutako hondakinen **kilogramoak, biztanle bakoitzeko Obraren**

tipologia:

Lizentzia behar duten obrak Obra

zibila

Obra txikia

Hondakinen tipologia: EHZ kodeak

Hondakinen kudeaketa mota

Birziklatzea

Zabortegian ezabatzea

Kudeaketa ezezaguna

Eremua

Biztanleria-eremua:

Euskal AEn sortutako eta/edo kudeatutako eraikuntza- eta eraispén-hondakinak.

Geografikoa:

Euskal Autonomia Erkidegoko eta hiru lurralde historikoetako balio esanguratsuak jasotzen dira.

Aldia:

Jasotako datuak urtean erregistratutako jardueri buruzkoak dira.

Galdetegiak

Ez dagokio

Zabalkundea

- [Internet: sintesi-etaulak. Estatistika Organoa](#)
- [Internet: estatistika-etaulak. Eustat](#)